

...eta

Kitto!

951 zkia.
2015-XI-20

**EIBARTAR BI
GREZIAKO
LESBOSERA**

**Bizitzak
salbatzera**

NAIA CAR

Apalategi auzoa, 1. 20600 Eibar

Tel.: 943 70 70 33

www.naiacar.com



*Kia garantía gida-liburua kontsultatu.

Kia kontzesionario
ofizial berria Eibarren



The Power to Surprise





IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julían Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"Liztor asiarrak akabatzenko arma biologiko bat erabili beharko genuke. Arma hori euli bat izan daiteke edo har bat. Badira euliak euren arrautza laga dezaketenak liztor erreginetan, gero jaiotako larbak liztorrak irentsi eta hiltzeko gai direnak. Eta badira nekazaritza trinkoan erabiltzen diren harrak. Baina, horrez gain, badago beste aukera bat: ernaldutako erreginak topatzen trebatutako txakurrak. Badira lan hori erlasterrekin egiten dutenak, ez hauekin akabatzenko, babesteko baizik"

(FELIX FONTAL,
TECNALIAKO BIOLOGOA)

"A-8 autobidean, gipuzkoarra izanda Gipuzkoarantz egingo banitu bidaiak, 35 euro ordainduko nuke tope hilean. Bizkaitarra banintz, ordea, eta Bizkairarantz egingo banu, deskontua izango nuke. Baina gipuzkoar honek Bizkaiko herri bat duenez helburu, autopista bera erabili arren, ez du ez deskontu ez toperik; kontrara, kontu korronte hustuketeta. Berba batean, lapurreta egiten digute: ostea baita arantzel hori ezartzea, pertsona mugimendu librea beharko lukeen eremuan. Gainera, mugalderoak zigortzen gaitu, hartu-eman naturalak ditugunok alderdi bien artean"

(LEIRE NARBAIZA,
ZUTABEGILEA)

"Jubilatuak sekulako eragina dute gure kontsumo-ohituretan. 60 urteko gorako pertsona batek beste edozeinek baino hiru aldiz botika gehiago hartzen ditu, gauza bera elikadura gehigarri eta bitaminen kasuetan eta maiz egiten ditu proba medikuak. Kosmetikoetan antzera: 60 urteko emakume batek 30 urtekoak baino hiru bider gehiago gastatzen ditu. Horrez gain, Mercedes auto bateko gidariaren batz besteko adina 62 urtekoa da. Publizitate mundura begirata, L'Oreal-ek 70 urteko Helen Mirren kontratatu du irudi moduan, eta Louis Vuitton-ek Sean Connery, bere 85 urterekin, euren mailetak saltzeko"

(JOHAN UTTERMAN,
LOMBARD ODIER-eko KUDEATZAILA)

Gure aurrekoak erabiltzen zuten euskerara

KORRONTA.- Goitik behera doan ura, mugitzen dena. Gaztelerazko 'corriente de agua'. "Amorraiñak korrontian ibiltzen dira".

KORTEJAU.- Emakumeak kortejatu, etxera lagundu. "Aspaldixan kortejatzen dabil, baiña oiñ arte ez dau kulaperik baiña hartu".

eskutitzak

EUSKERIAREN EGUNAREKIN BAT EGIN DEIGUNI!

Datorren abenduaren 3an Euskeriaren Eguna ospatuko dogu Eibarren. Hori dala-eta, eibartar guztiak egun horretan parte hartzera gonbidatu nahi dugu: herritarrek, kultur, kirol eta musika taldiak, ikastetxiak, dendari eta tabernarixak, heldu zein ume... Arratsaldeko 18:00etan ekingo detsagu ekitaldixari "Zunba euskeraz" saiuaekin. 18:30ian DBHko ikasliak idatzitako mezuak irakorriko di-

ttue, eta 18:45ian, helioz betetako 500 globo banatuko dugu Untzagara juaten diranen artian. Guztiak bete eta gero, 19:00ak aldera, danak batera aileratuko dugu. "Euskeraz bizi nahi dut" kantueren doinuarekin dantza egiñez amaituko dogu eguna. Ia aurtan be Untzaga plazia euskaltzalez betetzen dogun, euskeraz bizi nahi dogula lau haizetara zabaltzeko.

EIBARKO EUSKALGINTZA



BARRENETXEA, OLAÑETA, JUARISTI (BOJ): 110 URTEKO IBILBIDEA

110 urte bete ditu BOJ enpresak eta bere historiaren erakusketa dotore eta Interesgarria ikusi eta gero, uste dut benetan egokia eta bidezkoa dela ondorengo lerroak partekatzea:

- Ez da ohikoa horrelako erakusketa bat antolatzeta eta hain txukun eta dotore aurkeztea.
- "Berrikuntza" hain modan dagoen honetan, Eibarko Industriaren Museoa irekita dagoen BOJen erakusketa honek, argi eta garbi adierazten du, ha-

sieratik gaur eguneraino, BOJek bere produktu eta lanean etengabeko eta benetako berrikuntzan jardun duela.

- BOJen 110 urte hauetan partaide izan eta diren guztiei ZORIONIK beroenak eta, zer esanik ez, Jose Fran Agirrebeñari hain erakusketa dotore eta interesgarria antolatu eta bere "ondo egindako lana" gatik. Esker Onez,

J.M. ULAZIA IBARZABAL



Euskara Elkarteak

ARGITARAZTZAILEA: ...eta kito! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus /
publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
ADMINISTRAZIOA: Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Salvamento Maritimo Humano
BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
(*...eta kito! k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO
UDALA**

Gipuzkoa
BERRIA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

Matxismuaren kontrako ekitaldixak

Azaruaren 13an egindako Gobernu Bazarrian, Emakumienganako Indarkerixaren Kontrako eguna dala eta adierazpen instituzionala onartu eben eta "emakumeen kontrako edozelako indarkerixaren aurrian gaitzespenik irmoena" adieraztiz gain, azaruaren 25aren harira antolatutako ekitaldixetan parte hartzera dei egin nahi detse herrittarrerri. Gure herrixan antolatutakuen **INDARKERIA MATXISTAREN AURKA** artian, bestiak beste,



atzo "Woman in black" performancea egin zan Untzagan eta gaur, barriz, Indianokua gaztelekuak "Autodefentsa Feminista" ikastarua hartuko dau. Martitzenian, 19.00etan "Violencia de Género en los procesos migratorios" izenburuko hitzaldixa egingo da Portalean eta eguaztenian (Azaruak 25ian) 18:45xetan anbulatorixoko parkian alkaritzen diranak Untzagaraiño juango dira, plazan 19:00etan hasiko dan alkarrataratzian parte hartzeko.

Gure Balioak Sarixa jaso eban Cancelok Coliseoan

Antonio Cancelo Eroskiren sortzaile eta Mondragon Taldeko presidente ohiak aurreko asteko egunian Coliseo antzokixan 150 lagun inguru bildu zittuan ekitaldixan jaso eban Gure Balioak Sarixa, iaz errekonozimendu bera jaso eban Sabin Osororen eskutik. Ekitaldixa zabaltzeko Eibarko Koru Gazteak Laboaren "Txoria txori" abestu eban eta, jarraixan Garbiñe Biurrunek epailliak egin eban berba. Canceloren lankide, lagun eta senitartekoen mezuekin osatutako bidebat erakutsi ondoren, hunkiturik jaso eban sarixa Cancelok eta esker oneko bere berbak entzun ondoren, Elena Martinek zuzentzen daberen gaztien abesbatzak amaiera biribilla emon zetsan ekitaldixari.



Ekitaldixan Eibarko Koru Gazteak abestu eta Garbiñe Biurrunek berba egin zeben.

Untzagako jubilauek martxa betian

Edarto pasau eben barixaku arratsaldia Untzagako jubilauek etxian, moda desfilia eta Voces y Cuerdas taldiaren emanaldixa tartian zirala. Eta asteburu honetan be ondo pasatzeko aukeria eukiko dabe, bixar 85 urtetik gorako bazkidieri omenaldixa egingo detse eta: 12:30xetan San Andres elizan Untzagako

jubilauek abesbatzaren parte-hartzia eukiko daberen mezia amaittuta, 14:30xetan Arratera juango dira, Kantabria jatetxian bazkaltzera. Bazkalostian oroigarrixak banatuko detse omendutakueri eta, amaittu baiño lehen, nahi daberenak dantzaren egitteko aukeria eukiko dau.



Errebalgo biharrak adjudikau dittue

Uztaillian 6.840.118 eurotan lehiaketara etara zittuen Errebalgo biharrak Dragados S.A. eraikuntza enpresari adjudikau detsez, 4.093.126 eurotan. Udalak aditzera emon dabenez, datorren hillian biharran hastia espero dabe eta hasieran pentsatzaren eben baiño lehen, 21 hillebeteko epian, 2017ko irailera amaittuta egotia dago aurreikusita.

Errebalen egingo diran biharretarako etara zittuen baldintza-orrixetan jasota daganari jarraituta, gaur egunian automobilak aparkatzeko erabiltzen dan tokian aisialdirako hainbat gune izango dittuan erabillera anitzera eraikiña jasoko dabe,



SILBIA HERNANDEZ

Gaztaiñerre ospatzen

AEK euskaltegikuak, Eibarko Kantuzaleak abesbatzak eta Musika Eskolako trikitilarixak lagunduta, giro ederrian ospatu eben Gaztaiñerre astelehian, tabernarik taberna kantuan juanda eta ondriana eginda.



LEIRE ITURBE

Kulturaniztasunaren jai arrakastatsua

Zapatuan Untzagan egindako Kulturaniztasunaren inguruko jaixak herrialde eta kultura ezberdiak batzeko aitzakixa emon zetsen

askori eta parte hartzera animau ziranak edarto pasau eben Maroko, Bolivia eta Kuba moduko herrialdiak toki berian bat egittia



Zapatuko ekitaldiko partehartzaillak plater tipikuak prestatzen. LEIRE ITURBE

lortu eban jaixan. Kulturaniztasunaren inguruko ekitaldixak hillaren amaiera arte jarraituko dabe: gaur 18:00etan "Inmigratioaren pertzepzioa Euskal Herrian" izenburuko hitzaldixa emongo dau Xabier Aierdi soziologuak (Portalean).

Kia kontzesionarixo barrixa Apalategin

Aurreko eguen arratsaldian zabaldu eban Kia enpresa korearrak automobilak saltzeko kontzesionarixo barrixa Apalategin, Azittaingo auzuaren urteeran. Lokalak erakusteko egindako



aurkezpenian Emilio Herrera markaren Espaiña maillako zuzendari nagusixa egon zan eta, herriko ordezkarihen artian, Miguel de los Toyos alkatiak be berba batzuk esan zittuan. Argazkixan Arkaitz Urigoitia Kia Naia Car-eko arduraduna Rafa Nadalek siñatutako kamisetarekin.

Parisko atentatuen kontra

Astelenenian, beste herri askotan egin eben moduan, Eibarren be udalak deittuta alkarrataratzia egin zan asteburuan Parisen izandako atentatuak gaitzetsi eta biktimeri alkartasuna azaltzeko.



autuan

JOKALARIXAK SIÑATZEN

Eguaztenian 18:00etatik 19:00etara Lillo eta Borja Baston Eibar foball taldeko jokalarixak El Corte Ingleseko kirol saillian egongo dira, nahi dabeneri siñatzeko prest.

SAHARAREN ALDE KONTZERTUA

Tindufeko saharar kanpamentuan izan diran kaltieri aurre egittekko laguntza batzeko kontzertu akustikua antolatu dabe domekarako Bubisher Sahararen alkartasunerako erakundekuak. Emanaldixa Bergarako gaztetxian, 17:30xetan hasiko da eta Iker Lauroba eta Itsasargiak, Beñat Igarabide, Sahara Libre, Folkia eta Emon taldeek joko dabe. Sarreriak 5 euro balixo dau eta dirua kanpamentuetara bidaliko da.




basquestay
 www.basquestay.com

Apartamentu baten jabe bazara,
 alokatu eta diru iturri bilakatu.

606 747 756
 info@basquestay.com

asteko 13 datua

enpresak jaso dittue udalaren 2.700 eta 3.000 euro arteko diru-laguntzak eta horretarako inbersifua 36.000 eurokoa, iaz holakuetarako bideratu eben kopurua baiño lau bider haundixagua izan da.

Aho-hortzen jardunaldi arrakastatsua

Aurreko hillaren erdialdian Mendaroko Ospitalian egindako "Aho-hortzen osasunaren II. Jardunaldixak" hainbat aditu bildu zittuan eta bakotzak bere espezialidadiaren inguruko azalpenak emoteko aukeria euki eban eta parte hartzen egon ziran lehen maillako arretarako odontologuakk, famelixa-mediakuak, pediatriak zein emagiñak arreta haundixarekin jarraitu zittuen esandako guztiak. Argazkixan, ezkerretik eskumara, jardunaldixan parte hartu ebenetako batzuk: Xabier Camino, Jose Vicente Bagan, Jo-



se Antonio Coello, Antonio Castaño, Maitena Urberuaga, Eduardo Maiz, Federico Simon, Jesus Rueda, Juan Jose Arana eta Fernando Esnal.



Dendarixen egoitza barrixa zabalik

Arraguetan urtietan egon eta gero, Eibarko Dendarixen Alkartiak egoitza barrixa inaugurau eban martitzenian, Urtzaille kaleko 1 zenbakixan (ext. 12. lokalian, Jatako etxietara juateko aldapan). 1987xan modu formalian eratu-

tako alkartiak aurrerantzian egoitza barrixan hartuko dau jendia eta, sasoi barrixetara egokitzeko ahalegiñari jarraituta, interneten alkartiarekin lotutakuen barri emoteko webgunia be dauka (eibarcomercial.org).

Geoparkiak Unescoren izendapena jaso dau

Aste honetan Parisen egin dan UNESCO erakundixaren Biltzar Orokorrian parte hartu daben 195 estatu-kidiak programa barrixa, Lurraren Zientzien eta Geoparkeen Nazioarteko Programa dalakua sortzia erabagi dabe eta, horrekin batera, gaur egun munduan daguazan 120 Geoparkiak, Zumaia-Deba-Mutrikuk osatzen daben Euskal Kostaldeko Geoparkia barne, Unesco erakundiak aitortutako toki izatera pasau dira. Izendapenak garrantzi haundixa dauka, "azken urtietan egindako biharra aitortzen dabelako eta, horrekin batera, nazioarte maillan promojiñorako bide barrixak zabalduko detsazelako". Aurrerantzian Geoparkiak beste figura ezagun batzuek (Unescoren Biosfera Erreserba, Munduko Ondarea edota Ondare Ez-materiala...) daken aitortpen mailla bera izango dabe, beraz.



Urte diferentietakuak baiña bixak primeran

Aurreko asteburuan urte berian jaixotakuen jai bat biharrian bi ospatu zittuen: barixakuan 1937xan jaixotako 30 bat lagun

batu ziran Untzagan, bestiak beste Peña Txinberan hamarretakua egin eta alkarrekin bazkaltzeko eta zapatuan, barrix,

1950ian jaixotakuen txandia izan zan. Egund bixetan bardin-bardin edarto pasau ebela, horretan dudarik ez dakagu.



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefona: 943 25 61 00

POLICLINICA GIPUZKOA

Azaroaren 25ean, asteazkena, Javier Murgoitio eta Jose Luis Elosegi zirujau orokor eta digestiokoek ohiko digestio patologien, eta horiek tratatzeko zauri txikiko kirurgiaren inguruko hitzaldia emango dute, Portalean, arratsaldeko 19:30ean. Sarrera libre da, bete arte.

Telefona: **943 00 28 00**
www.policlinicagipuzkoa.com



Murgoitio eta Elosegi doktoreak.

Ohiko digestio-patologientzat zauri txikiko kirurgia bidezko tratamenduak

Digestio-kirurgian, XX. mende amaieran eta XXI. mende hasieran gertatu den berritasun nagusia zauri txikiko kirurgia da. "Alor gastrikoan zauri txikiko kirurgiak abantaila handiak ekarri ditu, hala nola, morbiditatea murriztea, errekupeazio-epeak moztea, eta operazioaren ondoko mina arintzea", azaldu du Jose Luis Elosegi zirujauak, eta gehitu du, "zauri txikiko kirurgiak or-bain handiak ekiditen ditu, hau da, zirujauak sabela ireki ohi izan dugu, horizontalean edo bertikalean, eta horrek, zauria, mina eta errekupeazio motelagoa eragiten ditu, infekzioen bat hartzeko arrisku handiagoarekin batera".

"Gizentasun-kirurgia jasaten duen pazienteak, aurrez argaltzeko saiakerak egin ditu, emaitzarik lortu gabe, eta kanpoko laguntza behar duela konturatzen da", adierazi du Javier Murgoitio doktoreak, "ez dago adin zehatzik, baina gorputzaren garapen

osoa egin arte itxaron ohi dugu; 18 urtetik hasita 65 urtera arteko muga jarzen dugu".

Kirurgia bariatrikoan "bypass" teknika izan da betidanik urre-patroia, baina %1-2ko heriotza-tasa dauka eta %20ko morbiditatea. "Pazienteak ez du hain operazio agresiborik nahi, eta

Zauri txikiko kirurgiak abantaila handiak ekarri ditu, errekupeazio epeak moztea, adibidez

hor sartzen da 'sleeve gastrikoa' deritzona", dio Murgoitioi. Gipuzkoa Poliklinikako kirurgia orokorreko taldea esperientziaduna da, ospe handiko zirujauak ditu, eta kirurgia-bolumena gero eta handiagoa da. Lan-taldeak argi dauka "zauri txikiko kirurgia dela gure esperientziarik aberasgarrienetako. Gizentasun-kirurgian ere aplikatu dugu, eta laparotomiak eragiten dituen zauri handiak ekiditez gain, teknika berri honekin abantaila handiak eskaintzen dizkiogu pazienteari", nabarmendu du Jose Luis Elosegik.

Kirurgia-teknika berri hauekin aurre egiten zaien patologiei dagokienez, Gipuzkoa Poliklinikari hainbat patologia tratatzen ditugu. "Kolona eta ondesteko alorrean, kirurgien ia %90 laparoskopia bidez egiten dira, eta gainontzekoa, patologia konplexuagoetan edo aurrez kirurgia jasan duten pazienteetan, laparotomia teknika erabiltzen da", esan du Elosegik.

HITZALDIA:
"Ohiko digestio patologien eta horiek tratatzeko zauri txikiko kirurgia"

OSASUN IKASGELAK
POLICLINICA GIPUZKOA



EL DIARIO VASCO

DATA Azaroaren 25ean **ORDUA** 19.30 h
TOPALEKUA Eibarko Portalea Udal Kultur Etxea
sarrera DOAN



POLICLINICA GIPUZKOA

www.policlinicagipuzkoa.com



Santa Zeziliak

musikaz betetako azarua

Domekia, azaruaren 22xa Santa Zezilia musikuen babesliaren eguna izango da eta, urtero bezala, herriko musikuak egun horren inguruan hamaika ekitaldi berezi antolatu ditue. Gaiñera, San Andres jaixak gero eta gertuago dakaguz eta, horren eragiñez edo, hillaren amaiera bittartian musikarekin lotutako hitzordu berezixak sekula baiño ugarixaguak izango dira oinguan.

CIELITO NINO BRAVO GOGORATZEN

GAUR 22:00ETAN NINO BRAVO GOGORATZEKO IKUSKIZUNA AILLEGAUKO DA ASTELENA FRONTOIRA, Infinity Eventos y Producciones-en eskutik. Valentziako abeslarixaren omenezko kontzertuan Eibarko



Cielito Musika Bandak jardungo dau, Carlos Sanchez Barak zuzenduta,

Serafin Zubirik eta Laia Benaches eta Felipe Garpe kantari valentziarren ahotsek lagunduta. Moldaketak, bestalde, Iñaki Urkizuk egin ditu. Beste toki batzuetan arrakasta haundixarekin eskindu daben emanaldixak publi-

kua 1970ko hamarkadan murgiltzeko osagaixak dituala diñue arduradunak: "Belaunaldi oso baten bizitzaren parte izan diran eta denboran zehar iraun daben abestixak, 'Cartas Amarillas', 'Un Beso y una Flor', 'América', 'Noelia' eta beste batzuk, Nino Bravo ospetsu bihurtu eben beste hainbat abestirekin batera entzuteko aukeria eukiko dau jendiak". Gaiñera, ikuskizuna biribiltzeko, Nino Bravoren bizitzari buruzko hiru bideo proiektatuko ditue. Ekitaldixak jende mordua batzia espero dabe antolatzailliak. Izan be, eguaztenerako beheko harmailletako 700 sarreak, salgai ipiñittako guztiak agortuta eguazen eta, hori ikusitta, goikuak be saltzen hasi ziran. Juan nahi dabenak sarrerria Astelenako txarteldegian erosteko aukeria eukiko dau, beraz, 10 eurotan.

SERENATA ZAPATU GABERDIXAN

SANTA ZEZILIAREN OMENEZKO EMANKIZUNEN ARTIAN EIBARTAR ASKORENDAKO BEREZIXENA, oindiok be, urtero Cielito Musika Banda-kuak eskintzen daben serenatia da. Zapatu gaberdixan Untzagatik urtengo dabe bandako musikuak, eurekin batera kalejiran ibiltzera animatzen diran herritar guztiak lagunduta, "Quinto levanta" ezagunarekin eta beste kantu batzuekin kaliak ordu txikixetan sartu arte giotzkeo asmuarekin.



MUSIKA ESKOLAKO 120 IKASLE

SANTA ZEZILIA OSPATZERA KALERA URTETZEN LEHENAK musika ikasliak izan ziran, musikarixen zaindarixaren egunaren harira eguazten arratsaldian kalejira egin eben eta. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako 120 bat ikaslek hartu eben parte ekitaldixan eta, kalejira amaittu eta jarraixan, eskolara bueltan txokolate-jana egin eben. Musika Eskolakuak eskerrak emon nahi detsez "gurasueri, beti laguntzeko prest daguazelako, taillar eskolako 1. maillako Begoña irakasliari eta bere ikasleei, prestautako txokolate eta bizkotxo goxuengaittik eta udaltzaiñeri, ibilbide osua primeran zaindu dabelako".

SOSTOA BIXAR T. ETXEBARRIAN

HERRIXAN DAGUAZEN ABESBATZAK, URTEROKO MARTXAN, SANTA ZEZILIAREN OMENEZKO EMANALDI BEREZIXAK eskinduko ditue asteburuan. Sostoa abesbatzak bixar arratsaldian, 19:30xetan kalera urtetzeko asmua dauka, eguraldixak horretarako aukeria emoten badetse behintzat. Toribio Etxebarria kalia hainbat abesti kantatzen egongo dirala aurreratu deskue eta, horrekin batera, Sostoa abesbatzaren gabonetako otarraren zozketia be egingo dabe (eguraldi oso txarra egiñez gero, bertan behera lagako dabe). Ez da hori izango, baiña, Sostoa abesbatzakuak datozen egunotarako eukiko daben ekitaldi bakarra. Izan be, azaruaren 28xan emanaldi berezixa, "Viva la Opera" izenburukua eskinduko dabe eibartarrak, Opera Divertimentorekin batera, 20:00etan Coliseo antzokixan. Operiak emon dittuan lanik esanguratsuenak laburbilduko daben emanaldixan, gaiñera, Silvina Arroyo, Jose Bardaji eta Andoni Barañano abeslarixak be jardungo dabe eta, horrez gain, Alexandra Andreeva eta Isabel Laspiur pianojoliak be lagunduko detse. Sarrerriak 15 euro balixo dau.

Sostoa ez eze, San Andres elizako abesbatzak be Santa Zeziliaren omenezko emanaldixa eskinduko dau: domekan, Santa Zezilia egunian 12:00xetan San Andres elizan hasiko dan mezan jardungo dabe kantuan.



TXISTULARIXEN GANBERA KONTZERTUA

USARTZA TXISTULARI TALDIAREN URTEKO AGENDAN TOKI BEREZIXA BETETZEN DABEN GANBERA KONTZERTUA Santa Zezilia egunian, domekan egingo da, 12:30etatik aurrera Coliseo antzokian. Elena Perezek zuzenduta, Usartza Txistulari Taldiarekin (Elena Perez eta Enrique Montero 1. txistuak; Ainhoa Urkizu eta Iratxe Gimenez 2. txistuak; Asier Castelos eta Javi Zorrakin silbotiak; Iñaki Orbegozo perkusiñua; eta German Ereña atabala) batera Harituz hari-laukotiak, Molto Vivace metal boskotiak eta Isabel Laspiur pianojoliak be jardungo dabe. Hónetxek osatzen dabe programia: "Hiru Kanta" (Mold. J.I. Ansorena), "Fandang Zarra" (Luis Aranburu), "Haur Jolasa" (J.I. Ansorena, Joserra Senperena), "Bitartean heldu eskutik" (J.I. Ansorena, Joserra Senperena), "Auzo Dantza" (J.I. Ansorena, Joserra Senperena), "Ezpata-dantza de Amaia" (Jesus Guridi), "Monjardin (pasodoblia)" (Aita Olazaran de Estella), "Ate aurrekoa" (J.I. Ansorena, Joserra Senperena), "Ohorezko Kontrapasa" (J.I. Ansorena, Joserra Senperena), "Habanera" (Ruper Lekue) eta "Konfidentziak" (Xabier Zabala). Bestalde, kontzertuaren aurretik, txistulariak 11:00etan Santa Zeziliaren omenezko kalejira egitteko asmua dake.



Txistularixen agendan berezixenen artian dago urtero eskintzen daben ganbera kontzertua. SILBIA HERNANDEZ

SANTA ZEZILIA PASAU ETA JARRAIXAN, SAN ANDRES JAIXEN BUELTAN OSPATUKO DABE 15. URTEURRENA USTEKA FANFARRERAKUAK. Urtemugaren harira antolatu daben programia be, gaiñera, ez da edozelakua, "oiñ arte herrixan sekula ikusi ez dan fanfarr jaialdixa" preparau dabela aurreratu deskue eta. Ustekabekuak diñuenez, "egun bakarrian azken 15 urtiotan Eibarrera bisitan etorritakuak baiño fanfarr gehixago alkartuko dittugu". Izan be, hilla-ren 28xan 12 fanfarrek, Ustekabek eta beste hamaikak jardungo dabe herrixan: Ustekabe (Eibar), Mauxitxa (Elgoibar), Irulitxa (Ermua), Gazte (Iruñea), Urolatarrak (Zumarraga), The Joselontxo's (Donostia), Pasai (Pasaia), Klean (Tolosa), Peña Poteo (Irun), Korapilo (Gasteiz), Gureztat (Portugalete) eta Turrutxiki (Ezkirotz) herri guztian jardungo dabe kalejiran, bakotxak auzo batian, herri guztia musikaz betetzen. Ustekaben hasieratik diharduan Josu Mendikutek aurreratu deskunez, "19:00etan danak Urkizun alkartuko gara 19:30etik aurrera Untzagara kalejira egitteko. Kalejira horretan



180 musikok batera joko dogu. Eibarren oiñ arte ez da sekula horrenbeste musiko batera alkartu, ez bada txistularixen alarderen batian edo horrelakoren batian izan". Untzagara aillegatzian, fanfarr guztiak banan banan eszenatokira igoko dira, pieza bana eskindu eta plaka oroigarria jasotzera eta danak alkarrekin egingo daben alardia amaitsu eta gero lpur sagardotegira juango dira afaltzera. Hori gitxi balitz, gaiñera, bezperarako (hillaren 27rako) rock eta ska kontzertuak antolatu dittue. 22:00etatik aurrera Untzagako karpan Los-DelGas (Erretereria), Skapital City (Eibar), The Rockos (Eibar) eta Be-

teik-pe (Donostia) taldiak jardungo dabe. Ustekabekuak azaldu dabenez, "jotzen jardungo daben talde guztietan Ustekabeko kideren bat edo gehixago dago. Izan be, Ustekabeko osatzen dogun guztiak batzen gaituana musikia da eta, horregaittik, gehixenak txaranga ez eze beste talde batzuetan edo Musika Bandan be jotzen dogu". Kontzerturako sarrerira duan izango da eta barruan Heineken txosnia egongo da martxan Ustekabekuen eskutik.

IDOIA BERGARETXE

ESTETIKA ZENTROA

Estaziño, 1 Tel. 943 20 03 45



EMAKUMEZKOA		GIZONEZKOA	
ZONALDEA	SAIOA	ZONALDEA	SAIOA
Begitarrea, goiko ezpaina, patilak, atzamarrak	15€	Begitarrea, belarriak, patilak, atzamarrak	15€
Izterondoak, besapeak, kokotsa, perianala, alba lerroa, garondoa, areolak	29€	Lepoa, besapeak, garondoa, kokotsa, eskuak	29€
Izterondo zabalak, besaurreak	39€	Besaurreak, bularralde, sabelalde, ipurmasailak	69€
Berna erdiak, pubis osoa, iztierrak, beso osoak, ipurmasailak, aurpegi osoa	69€	Beso osoak, bizkarra, bular osoa, bizarra	75€
Berna osoak	79€	Berna osoak	99€

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13

Orbeako dorreak / 1. solairua

☎ 943 12 02 00 ☎ Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1) Kardiologia	11) Barne Medikuntza
2) Zirugia	12) Radiologia
3) Dermatologia	13) Urologia
4) Dietetika / Nutrizioa	14) Traumatologia
5) Análisi Klinikoak	15) Koloproktologia
6) Ortodontzia	16) Erizaintza
7) Otorrinolaringologia	17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8) Pediatria	18) Foto-depilazio
9) Psikiatria	Unitatea
10) Neurologia	

San Andres gimnasia torneoa prestaketa ezinhobea izan zen Espainiako txapelketarako

250 gimnasta baino gehiagok hartu zuten parte zapatuan Ipuruan jokaturako San Andres Torneoaren 17. edizioan. 22 klubuen partaidetza izan zuen alebinetatik hasi eta 1. maila absolutorainoko lehiaketak jasozituen torneoa. Ipuruako bi taldeek bikain jardun zuten burututako errotazio bietan. Kadete mailakoak urrezkoa bereganatu zuen bost pelotekin egindako ariketan, perfektio oso gertu, eta alebinek zilarrezkoa eskuratu zuten, Club Lare-

doren atzetik. Talde biak Zaragozan daude dagoeneko taldekako Espainiako txapelaren bila: kadeteak gaur lehiatuko dira eta alebinak domekan.

Susana Prietoren lana eskertuz

Tania Nagornaiarekin batera, Ipurua Klubeko lorpen handienetako partaide izan den Prietok etapa bat itxi du, gimnasta, teknikari eta aholkulari modura egindako ibilbidean. Klubak eskertu egin dio hainbat urtetan egindako lana eta



Ipuruako gimnastak eta teknikariak Kirol Patronatuko ordezkariekin.

alde bien artean lortutako adostasuna. Hemendik aurrera, Nagornai zuzendariak Miriam Merino gimnasta handia-

ren eta Natalia Urmakaeva entrenatzailearen laguntza izango du Ipuruaren palmaresa hobetzeko ahaleginarekin.

Albistegi, 50. hamarkadako foballari handia hil da

Aurreko astelehenean hil zen, 82 urterekin, Alberto Albistegi Arizmendiarieta, Albistegitarren foballeko harrobiaren aitzindaria. German atezainaren eta Alberto defentsaren aitak eta Alex eta



Albistegi goian ezkerrean, Realaren kamisetarekin. Bere azpian Adolfo Sarasketa, eibartarra hau ere.

Lauraren aitona ibilbide luzea egin zuen foballean 50. hamarkadan. Juventud Deportiva Arraten hasi eta Eibarren jokatu zuen ondoren urtebetean; Realean hiru urte egin zituen, Osasunan beste lau, Zaragozan hilabete batzuk eta berriz ere Eibarrera itzuli zen. Gainera, Espainiako selekzio jubenilarekin Alemania, Belgika edo Jugoslabiako taldeen kontra jokatzeak aukera izan zuen.

Somos Eibar aurrekoengandik aldentzen sailkapenean

Elgoibarren azken jardunaldian Alcora Forging Groupekin 30-25 galdu eta gero, Fernandez mutilek denboraldi honetan zailago izango dute Nazional 1. mailako euren multzoko lehenengoko bi postuetatik bat lortzea. Uhartek eta Tolosak aurrera jo dute sailkapenean, inolako hutsik egin gabe, eta euren atzetik Bidasoairun, Anaitasuna eta Trapagaran ere aurretik ditu Somos Eibarrek azken porrotaren ondoren. Asteburu honetan Bidasoa hartuko dute Ipuruan, norgehiagoka zail baina garrantzi handikoan.

Haritza senior mailako bigarren taldeak, bestalde, ondo nagusitu zitzaion Urnieta Balerdiri (33-20). Avia Eibar Eskubaloia senior mailako nesken taldea, ostera, eskas samar ibili zen eta 20-39 galdu zuen Zarautz A taldearen kontra Ipuruan.





MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GAS INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

Isasi, 31 Egunero 06.00-22.00
943 207 737

*Etorri!
Zure etxian
egongo zara!!*

Astelehenetik ostegunera
PINTXO-POTEA!

KAFETEGIA OKINDEGIA

SUTLINDO

Eibarrek 32 milioi eurotik gorako aurrekontua aurkeztuko du

Alex Aranzabalek zuzentzen duen klubak abenduaren 17an, eguenean, egingo du Ohiko Batzarra Coliseoan eta bertan garrantzizko kontuak azalduko zaizkie akziodunei. Gero eta indar handiagoa hartzen diharduen klubak inoizko aurrekontu handiena aurkeztuko du 2015-16 denboraldira: 32 milioi eta erdi euro. Bestalde, azken denboraldian 4,3 milioiko superabita izan du klubak. Aurrekontu berriari begira, telebistako transmisioei esker 28 milioi euro ingesatuko ditu klubak eta, irteeren arloan, jokalaria eta teknikarien soldatak 13 milioira helduko

dira, kirolariak ez diren pertsonalaren soldatak bi milioiak gaindituko dituzten bitartean. Aurreikusten den superabita, zergak ordaindu baino lehen, ia 11 milioi eurokoa da. Gaur egun Eibar FT-k 5.104 abonatu ditu eta, Aranzabal presidentek dioenez, "mugara heldu gara, Ipuruak ez du gehiagorako ematen". Gema Baqué marketing zuzendariak kaleratuko duten Fan Kanpaina ere aurkeztu zuen aurreko asteko prentsurrekoan, "Fan Armagina egiteko aukera eskaintzeko, txartel baten bidez, bazkide ez diren eta Eibarren bizi ez direnei". Txartel hori klubaren



Borja Baston BBVA Ligako jokalaria onena izendatu zuten urrian. Dani Garciak bere kontratua luzatu du.

web orrian lortu ahal izango da eta, 30 euroren truke, "bezero berriak" hainbat deskontu izango ditu Eibarrek ateratako promozioetan.

Villarrealera joateko autobusa

Domekan 16.00etan El Madrigalen jokatu den Villarreal-Eibar partidurako autobusa an-

tolatuko dute Premier Bidaiak eta Eskozia La Brava peñakoek. Autobusa Ego-Gainetik irtengo da bihar goizeko 07.00etan eta buelta domekan izango da, partiduen ondoren, gaua Castellon pasatu eta gero. Eskozia La Bravakoek anaiarteko bazkaria egingo dute Celtic Submariko peñakoekin.

Hilaren 30ean hasiko da profesionalen denboraldia Astelena frontoian

Sanjuanetan aurreko denboraldia agurtu zuenetik bakarrik afizionatuen partidua hartu ditu orain arte pilotaren Katedralak. Orduetik eraberritze lanak egin dituzte frontoian, tartean larrialdietarako irteera



Jokin Altuna aurrelariak jokatu dezake San Andres eguneko partidua nagusian.

bi eginez eta igogailua eraikiz; horregatik atzeratu da denboraldi hasiera. San Andres eguneko kartela egin barik dago oraindik (bezperan lau eta erdiko finala jokatu da Bilbon), baina Aspek pilotari onenak ekartzeko asmoa du egun horretarako. Bestalde, jarraian hasiko den binakako txapelketa nagusiko

hainbat partidu jokatu dira Astelena; hori bai, "beti ere Eibarrek Ipuruan partidurik ez duenean", Aspekoei diotenez.

Klubaren Artekua

Afizionatuen mailako Klubaren Arteko Torneo-

aren lehen fasea amaitu zen aurreko asteburuan eta Mikel Caminak alebin mailan eta Mikel Azkargortak infantiletan lehen postua lortu dute euren multzotan. Hori dela-eta, biek aurrera jarraituko dute txapelaren bila. Narbaiza-Zubizarreta senior bikoteak galdu egin zuen Iparraldeko ordezkarien aurkako partiduan.



Katu Kalek 52-48 galdu zuen kanpoan

Eibarko saskibaloitza taldea gero eta gehiago ari da nabaritzen piboten falta, eta lesio hoiengaz azken partidua galdu ditu. Azken Erreterian izan zen aurreko zapatuan: atsedendira 21-27 aurretik joanda ere, egindako defentsa ona ez zen nahikoa izan partidua aurrera ateratzeko. Eraitza horrekin, eibartarrak sailkapenaren erdialdean kokatu dira, lau partida irabazi era beste hainbat galdu.

Eguneko menuak Menu bereziak

Karta



Restaurante La Jara
BERRIA
Saratsuegi, 5
943-257605

SAN ANDRESETERAKO MENUA

- Nafarroako zainzuriak garien maionesarekin
 - Gula eta mendreska entsalada epela
 - Otarrainxkak plantxan
 - Onddo risottoa
 - Solomoak foie eta oportoarekin
 - Txipiroiak euren tintan
 - Txahal-masailak ardo beltza erara tipula-marmeladarekin
 - Zapo-buztan erreak intxaurre-zoldarekin
 - Etxeko postreak aukeran
 - Ura, albariñoa edo kriantza
- 30 € (BEZ barme)

Julen Garro zazpigarrena Gipuzkoako xake txapelketan

Zapatuan Donostian amaitu zen zazpi jardunaldi iraun duen txapelketa horretan, Klub Deportiboko ordezkariak Aritz Izagirre irabazi zion eta, lau puntu eta erdirekin, txapelketa nagusiko azken sailkapeneko 7. postua eskuratu zuen. Deporreko beste bi ordezkariak ere garaile izan ziren azken jardunaldian eta, horri esker, Ion Esturok 11. postuan amaitu zuen eta Jon Aranak 18.ean. Hirugarren mailan, Jose Antonio Garridok bide beretik jo zuen eta, Iker Rodriguezi irabazita, sailkapen horretako zortzigarren postuan amaitu zuen.

Bihar goizean, bestalde, Arnarasa Fibrosi Kistikoaren Elkartearekin elkarlanean, Klub Deportiboko xake batzordeak 'Xake Fibrosi Kistikoari' ekitaldia antolatuko du Untzagan. Hor izango da Alejandro Franco nazioarteko maisua aldi-bereko xake partidak jokatzeko hara joango diren guztien aurka.



Moya plakatuta eta Txixto babesean. Goian, Zamakola.

Julen Zamakola errugbilaria Euskarians-ekin

Avia Eibar Rugby Taldeko jokalaria berriro deitu diote Euskarians-ekin jokatzeko, oraingo honetan Txileren aurkako partiduan. Neurketa horretan, gainera, euskaldunek 31-14 nagusitu zitzaizkien hegoamerikarrei. Eta bere taldeak denboraldiko hirugarren garaipena eskuratu zuen Unben, sailkapeneko azken postuetatik ihes egiteko borroka berean diharduen Salvador Biri 31-13 irabazita. Gaizkak gau-

zatutako bi zigor-kolpeekin aurreratu ziren Pello Urkidiren mutilak eta atsedendian 9-3ko markagailuarekin erretiratu ziren. Bigarren zati biziagotan, El Salvador hobeto sartu zen, bi entsegu eskuratuta, baina azken 20 minutuak eibartarrenak izan ziren, hauek azken hiru entseguen errematatzeko. Garaipen horrekin Eibar Rugby Taldeak jauzia egin du sailkapeneko erdialdera, 7. posturaino.

Ane Ziaran nagusi Mutrikuko herri-krosean

Aurreko zapatu arratsaldean jokaturako Mutrikuko Herri-Krosaren 13. edizioan, Eibarko atleta lehena izan zen helmugan, 45 minutu eta 19 segundoko denborarekin. Bere atzetik sailkatu ziren Pilar Arriola elgoibartarra eta Xipri Zabala mutrikuarra. Gizonezkoetan, bestalde, Aitor Mimenza elorriotarra nagusitu zen (32:15), Elkaitz Kortazar durangarren eta Xabier Urzelai oñatiarraren aurretik. Mutriku-Deba-Mutriku herri-kros horretan 88 atleta izan ziren parte hartzen; kros txikiak parte-hartzaile gehiago izan zituen, 102 guztira.



Garaipenak ihes egin zion Urbat-i 7 segundoren faltan

Aukera ezin aproposagoa galdu zuen Urbat waterpolo taldeak jokatzeko diharduen Euskal Liga zail horretan garaipena eskuratzeko. Iruñeko Larrainaren aurkako partidua hainbat gorabehera izan zituen: lehen laurdenean eskaini zuten eibartarrek jokorik onena (1-4 irabazten joan ziren), eta hurrengo bietan fisikoki nabarmen jaitsi ondoren, 8-6 atzetik zihoazela ekin zioten azken laurdenean bere mailarik onenera itzuli ziren, markagailuan 8-9 aurretik ipintzeraino. Lastima zazpi segundoren faltan egindako

akatsak berdinketarako tartea besterik ez ziola eman Urbati. Bihar, 14.30ean hasita, Donosti Waterpolo hartuko dute Orbean, salbazioa lortzeko borrokan aurkari zuzena izango dena.

Seniorrek lan zailak badituzte denboraldi honetan Euskal Herriko talde onenekin osatutako mailan jarduteko, ez da gauza bera gertatzen harrobiko taldeekin. Kadeteek 19-9 eta eskola Ligakoek 21-9 irabazi zituzten euren partidua: bietan Oiaso Bidasoa izan zen aurkaria eta ondo nagusitu ziren eibartarrak.



Bihar 14.30ean Donosti Waterpolo etorriko da Orbeara.



IÑIGO UNZETA SOROSLEA

Zerbitzu bokazioak bultzatuta, Getariako Eskola Nautikoko partaide batzuk Salvamento Marítimo Humanitario elkarte sortu dute Egeo itsasoko egoera migratzaileari buelta emateko. Greziako uhartetan, lurretik gertu, zenbat bizitza galtzen diren ikusita, Lesbosera joan eta jendeari uretatik irtetzen laguntzeko taldea osatu dute. Abenduaren 1ean abiatuko da lehenengo txanda, Borja Olabegojeaskoetxea eibartarrarekin, eta 15ean abiatuko da Iñigo Unzeta, hau ere Eibarkoa, bigarren txandan. Laguntzea besterik ez dute nahi.

“Errefuxiatuak uretan ez daitezela ito izango da gure zeregina Grezian”

- Nondik dator Lesbosera joateko ideia hori? Zenbat lagun zaudete prest ekimen hori burutzeko?

Getariako Itsas Eskolako hezitzaileen talde baten ideia izan zen. Ikusirik Afrikatik datozen iheslari edo errefuxiatuen bizipenak, askok zeharkaldian bizitza galtzen dutela, konturatu ginen Greziako kostaldean, hondartzatik gertu, asko han geratzen direla... Helmuga hain gertu ikusteak, gainean dararmaten nekeak, unean uneko urduritasunak, itsasontzi, txalupa edo dena delako ontzi kaskarraren egoerak... guzti horiek hondamendirako faktoreak dira. Eta asko hor bertan geratzen dira. Hori da guk saihestu nahi duguna, horretan lagundu dezakegu. Behin lurrean Gurutze Gorriak eta antzerako erakundeek lagundu diezaiekete, baina uretan behar duten esku hori guk eskainiko diegu. Orain arte 40 bat bagaude, hainbat txandatan banatuko garenak.

- Zu bigarrean zoz, ez? Zelan osatu dituzue txandok eta zenbat egunerako?

Zortzi laguneko txandak osatu ditugu. Lehenengo txandak abenduaren 1ean irtengo du -hor joango da Borja Olabe eibartarra- eta ni bigarrean joango naiz, hilaren 15ean. Han bi aste emango ditugu lanean, gutxi gorabehera. Lan gogorra izango da egokituko zaiguna eta epe hori luzatzea ez dut uste komeni zaigunik. Gainera, lanean baimena eskatu dut eta hori ere konpondu behar da.

- Lesbosera joateko asmoa duzue? Zergatik bertara? Inguruko uhartetik mugituko zarete?

Uharte horietan nabaritu dugu behar handiena. Gainera, aukera ematen digu gure itsasontzi txikiarekin uharte batetik bestera mugitzeko. Sei kilometroko eremua hartzen du eta itsas-marea ez da asko igotzen; arazok ur-korronteek eta haizeek sortzen dituzte. Negua gerturatzean, hotza ere hor dago. Uda sasoiari iheslariak edozein ordutan mugitu izan dira, baina orain, Turkiako polizien beldur, gaez ibiltzen dira batez ere... Guk badatozela jakinda errazago lagunduko diegu.

- Administrazioaren aldetik jaso duzue laguntzarik?

Aste honetan aurrekontuaren memoria aurkeztu dut Udalean, zapatuan Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariarekin izan ginen, Zarrutze Udala prest dago kolaboratzeko, Acnur errefuxiatuei laguntzen dizkien erakundeak ere diru kopuru bat emango digu... Dena dela, hasierako gastuak gure poltsikotik ordaindu beharko ditugu. Eta Laboral Kutxan ere zabaldu dugu kontua jendeak laguntzeko aukera izan dezan.

- Ze materialekin egingo diozue aurre erronka honi? Baduzue esperientziarik?

Hiru itsasontzi eramango ditugu eta, bat edo bi lagun motorrean joango dira, beste

guztiok lurrean zain gauden bitartean. 10-15 orduko jardunaldiak izango dira, batez ere gaez egin beharrekoak. Gehienok sorosleak gara, eta besteak itsas-kapitainak; esperientzia duen jendea dago, hondamendietan jardundakoak, badago Biescaseko kanpingekoa bizi izan zuena... Horregatik eskatzen dugu osasun edo uretako soroslea izatea gurekin lan egiteko; gainera, interesatuak proba batzuk egin beharko lituzke.

- Aurretik tokatu zaizu erreskateak egin behar izatea? Zer izaten da garrantzitsuen horrelako egoeretan?

Egokitutako zaizkit halakoak. Baina une guztiak dira ezberdinak: urduritasunak, nekeak, arriskuan dagoenaren pisuak... zeresan handia izaten dute. Lehenengoa, orokorrean, izaten da larri dagoenari hitz egitea, lasaitzen joateko. Gero, Frantzia esaterako, bertako sorosleak poliziak izaten direnez, errespetu gehiago ere sortzen dute... han isunak ere jartzen dizkiete aginduak betetzen ez dituztenei.


- Ez duzue abentura makala izango...

Ez dago abenturarik hor. Denbora gutxian izango gara eta lan gogorra dagokigu betetzeari. Eskaini behar dugun zerbitzua uretan dago: ez daitezela ito da gure eginbeharra.



Sei lan lehian herri-mailako Beldur Barik sarietan

Emakumeenganako Indarke-riaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira antolatutako Beldur Barik lehiaketara sei lan aurkeztu dituzte Eibartik aurten. Horietak bost lehen kategorian, 12/17 urte bitarteko mailan lehiatuko dira: "Spira Beldur Barik Coliflower Power" (Marina Laspiur Dosuna, Xabier Badiola Bastida, Naroa Garzo Diaz eta Yaiza Cabrera Rios), "Mezuak sarera" (Leire Albizu Hernandez, Maialen Asenjo Godoy, Maite Bilbatua Zulueta, Erika Chime-no Garcia, Amaia Del Olmo Pe-layo, Nerea Etxaniz Osas, Ander Fernandez Carrero, Nora Fidalgo Arriola, Imanol Garcia Hernandez, Nerea Gutierrez Eizagirre, Julene Izaga Garcia, Jone Izquierdo Alcoba, Paula Laskurain Ortega, Ane Losada Achiaga, Unai Martinez Egu-ren, Goizane Olañeta Baza, Jose Raul Piñeiro Gonzalez, Iru-ne Ruiz Lopez, Ander Saenz Marcilla, Erika Sanmamed Hurtado, Leyre Zabala Ferrei-ro, Amaia Alberdi Moreno, Laura Alvarez Gallardo, Josu Alvarez Palacin, Maria Arregi Retenaga, Tania Benavides Ti-noco, Ander Bouzambou Do-cabo, Araceli Caceres Jazmin, Javier Criado Garcia, Jorge Ezenarro Larrinaga, Irene Etxeberria Ocamica, Julen Fer-nandez Merino, Cynthia Garri-do Outeiriño, Paula Gomez Gonzalez, Idoia Izaga Fuente, Marina Lahidalga Gimeno, Ga-briela Loor Leon, Erika Mate-



Eibarko zein beste herrietako bideoak ikusteko Beldur Barik webgunera jo daiteke, lehiaketara aurkeztutako guztiak ikusgai daude-eta.

os Fiz, Ainhoa Mendazona Ramirez, Alicia Ron Iglesias, Mairder Rubiano Caro, Eider Sobron Coteron eta Elena Susa-eta Markuerkiaga), "Amodioa ez da bihotza... emozioa bai-zik" (Ander Abendibar Pas-cual, Andrea Achiaga Villaver-de, Nahia Tahiche Alvarez Gomez, Maialen Ballesteros Redondo, Marta Cano Gomez, Julen Carmona Ramos, Ariane Cid Mateos, Erik Delgado Be-nitez, Anie Erkiaga Egiazu, Li-dia Fernandez Ferreras, Aimar Gallego Laguna, Gorka Gomez Lopez, Ane Gomez Ruiz, Igor Gonzalez Alcoceba, Imanol Hierro Castaño, Naroa Hurta-do Horna, Celia Linares Calvo, Julen Luke Martinez, Eneko

Martin Barbero, Aidan Martin Hernandez, Patricia Martin Ro-driguez, Ander Morales Perez, Irati Muradas Crespo, Jokin Pe-laez Cortes, Maria Sanz Lopez, Siankou Senghor Urbain, Mi-kel Simon Perez, Paula Suarez Cid, Jon Zabaleta Ibarra, Nerea Alberdi Arrillaga, Nerea Ara-gon Manzanos, Ignacio Arana Unamuno, Mikel Arrarte Lucas, Ander Arrillaga Sarasketa, Xa-bier Campo Zabala, Nagore Cid Gutierrez, Andoni De An-dres Irazabal, Reijhan Dayana Espinosa Lopez, Jone Etxabe Valle, Jon Garcia Apoita, Ene-ko Garcia Trujillo, Andrea Go-rosabel Aranzeta, Itziar Larza-bal Hinojosa, June Martiez Me-da, Jaione Mendia Montaña,

Paula Morales Leon, Gorka Ordoño Murillo, Miren Ortuzar Villanueva, Mikel Osoro Ordoño, Nora Otegi Alvarez, An-drea Piñeiro Ruiz, Aitor Rubio Prieto, Christel Daniela Ruga-ma Mejia, Diego Ruiz Otero, Aldani Enmanuel Santos Ra-mirez, Iker Urbieta Becana, Ane Zuazua Aizpuru eta Aner Zuloaga Alvarez), "Ireki atea!" (Naia Saez, Eider Clavel, Ele-ne Gisasola, Elene Varela eta Malen Txurruka) eta "Ez horre-la ez!" (Jon Alonso, Peru Al-berdi eta Aitor Jainaga). Seiga-rren lana, "Hablar por hablar" (Nerea Armero Garzon eta Ma-rina Diez Arrizabalaga) biga-rren kategorian, 18/26 urte bi-tarteko mailan lehiatuko da. Lanak ikusteko <http://beldur-barik.org/category/2015-lehiaketa/gipuzkoa-2015-lehiaketa/eibar-gipuzkoa-2015-lehiaketa/helbidera sartu daiteke>.

Eibarko sariak datorren barixakuan

Horren harira, datorren aste-ko barixakuan Beldur Barik jaialdia egingo da Portalean, 18:30ean hasita, eibartarren la-nak aurkeztu eta herri mailako sariak banatzeko. Horrez gain, bertso saioa eskainiko dute Eli Pagola, Manu Goiogana eta Nerea Elustondo bertsolariak. Eta Euskal Herri mailako sa-riak, berriz, azaroaren 28an banatuko dituzte, 20:00etan Amurrioko Antzokian, Beldur Barik Topaketaren amaieran.



Azido hialuronikoko
ile-tratamendu berriak

Khôl
Estilistak

Estaziño, 4 943 254776

ITZULPEN

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.**

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.com



Zer da **AUDIOCENTRO IGMAR**?

Audiocentro entzumenaren zainketa eta kontrol osoa egiten duen entzumen-zentroa da, hau da, entzumen-arazoen prebentziotik hasita, arazo horiek konpondu arte. Audifonoak eta entzumen-babesleak egokitzen ditugu, eta gailu horien mantentzeaz eta konponketaz ere arduratzen gara.

- ENTZUMEN ONA IZATEAK DUEN GARRANTZIAZ JABETZEN GARA?

Orohar entzumenari ez diogu behar beste garrantzirik ematen, eta ez gara konturatzen gaizki entzuteak zer nolako isolamendua eta zailtasunak eragiten dizkigun. Ondo entzuten badugu hobeto erlaxionatuko gara inguruarekin, beste pertsona batzuekin, bizi garen munduan hobeto komunikatuko gara, eta hori ezin badugu egin, etsigarria da.

- AUDIOPROTESISTEK BELARRIEN ALDIKAKO AZTERKETAK GOMENDATZEN DITUZTE, BELARRIAK ONDO FUNTZIONATZEN DUELA EGIAZTATZEKO EDO EGON DAITEZKEEN ARAZOAK SASOIZ TRATATZEKO. KASU EGITEN DIEGU GOMENDIO HORIEI?

Askotan, gure bizitza erritmoarengatik, prebentzioa ahaztu egiten dugu, eta arazoa jada badagoenean jotzen dugu konponbide bila. Horrek zaildu egiten du soluzioa.

- AZTERKETAK ENTZUMEN-PROBA ERRAZEN BITARTEZ EGITEN DIRA. AUDIOCENTROK ESKAINTZEN DU PROBA HORIEK EGITEKO AUKERA?

Jakina, gure zentroan proba azkarrak edo *screening*-ak egiten ditugu arazoak azkar baina azaletik antzemateko, baina baita azterketa sakonagoak ere, hala nola, bideo-

toskopiak, audiometria tonalak eta bokalak, inpedanzio-metriak... Gainera, gure kanpainak aprobetxatuz, azterketa horiek doan egin daitezke.

- ZER ESKAINTZEN DIE AUDIOCENTRO IGMAR-EK ENTZUMEN-ARAZOAK DITUZTEN PERTSONEI?

Entzumen-soluziorik aurreratuenak eskaintzen ditugu, pertsonalizatuak, prezio egokituarekin eta neurrirra egindako finantziarioarekin. Mantentzea eta pilak ere doan izaten dira. Baina, batez ere, gure entzumen-soluzioak denbora tarte batean eta konpromiso barik probatzeko aukera eskaintzen dugu, eta beraz, pazienteak konforme ez badago, ez du ezer galtzen.

- ZEIN AHOLKU EMANGO ZENITUZKETE ENTZUMEN-OSASUNA ZAINTEZKO?

Ondorengoak emango genituzke:

- Giro zaratsuetan lan eginez gero, zarataren kontrako babesleak erabiltzea.
- Sasoi honetan ohikoak dira katarroak eta gripea, eta horrelakoetan arretaz zaindu behar ditugu gure belarriak, entzumena gal daiteke-eta.
- Entzumen azterketa egin behar da ondorengo kasuetan:
 - Nahitaezkoa 50 urtetik gorakoetan.
 - Belarrietan ondoeza igartzen dugunean.
 - Hizketaldi bat jarraitzeko, telebista entzuteko... zailtasunak ditugunean.
- Belarriak garbitzeko makilaxoekin kontuz, kaltegarriak izan daitezke-eta. Produktu egokiagoak daude, eta guri galdetuz gero, egokiena gomendatuko dugu.
- Belarrietarako tapoiak erabiltzea gomendagarria da, eta dutxatik edo igerilekutik irten eta gero, belarriak ondo sikatu behar ditugu, ondo eta infekzioei aurre egiteko.

- ESPEZIALISTA MODUAN, ZEIN AHOLKU EMANGO ZENUKE, INGURATZEN GAITUEN ZARATAREN AURREAN, ENTZUMEN-OSASUN ONA IZATEKO?

Eman ditugun aholkuez gain, garrantzitsua da aldika azterketak egitea, azterketa horietan, espezialistak, modu pertsonalizatuan esango digulako zein den gure entzumen-osauna zaintzeko modurik egokiena.




Anton Martinena
GOI TEKNIKARI
AUDIO-PROTESISTA

Entzumen-test integralak
Audifono digitalak
Neurrira egindako tapoiak
Konektibitate-soluzioak
Mantentze-tekniko integrala
Neurrira egindako finantziarioa

 **audiocentro**
Igmar

Julian Etxeberría, 2
20600 Eibar
Tel. 943 20 26 99

Audioprotesis goi mailako
teknikaria: Antón Martinena



Datorren azaroaren 25ean "Nola galdu lotsa euskaraz hitzegiterakoan eta hitz egitearen arrazoiak" hitzaldia eskainiko du Jürgen Wolff-ek ...eta kitto!n, 19:00etan. Wolff-ek zuzentzen duen Tandem Fundazioaren helburua hizkuntzak pertsonen arteko harreman zuzenaren bitartez irakastea da.

JÜRGEN WOLFF (Tandem Fundazioa) "Lotsak hitz jariora moteldu edo moztu egin dezake"

- Ze eratako hitzaldia eskainiko duzu Eibarren?

Hitzaldia baino gehiago tailerra izango da, oso aktiboa (jendea arbelara irten gabe, noski, ez gaude ikastolan ...). Aholkera, ulermena eta mintzamen librea landuko ditugu. Bukaearen trikimailuak emango ditut bakoitzak bere 'euskarra munda' hobetu dezan.

- Zergatik dira gurasoak klabe euskeraren erabileran, transmisioan?

Gurasoak (edo bere papera betetzen duten pertsonak) klabe dira edozein hizkuntzaren transmisioan. Lehen hizkuntza ikasi gabe 'edoskitzen' da, eta hor dago guraso euskaldunen papera. Hala ere, guraso erdaldunek ere badute zereginik euskarari laguntzeko, gaztelaren transmisioa kaltetu gabe. Hau beste tailerra izango litzateke, familia bakoitzean aztertu behar delako nolakoak diren hizkuntzen konstelazioak eta estrategia egokiak. Esate baterako bikotea mistoa balitz, bakoitzak bere hizkuntza eskaini behar du, eta elkarrekin umeentzako jardueretan bi hizkuntzetan parte hartu.

- Lotsak eta konplexuek zer nolako eragina dute hizkuntza bat erabiltzerakoan? Horiek nola gainditu daitezke?

Urduitasuna dela-eta, askotan zer esan jakin gabe geratzen gara; ulermena ere gutxitu daiteke, eta lotsak hitz jariora moteldu edo moztu dezake. Hitzaldi-tailer honetan hau gainditzeko bide asko ezagutuko ditugu. Adibidez, mugimenduak lotsa gutxitzen du, argi ahulak eta musika xuabeak ere bai (mintzalaguneentzako leku aproposena 'piano-bar' bat dirudi)...

- Holako hitzaldiak bizipen pertsonaletatik etorri zaizkizu?

Bizipen ezkorretatik zein baikorretatik. Aleman irakasle izanik, baneuzkan ikasle batzuk maila altua iritsi arte ahoa ireki ez zutenak, bikaintasuna lortzeko nahian. Beste aldean, lehen klase egunetatik aurrera ikasitako hitzak kalean erabili zituen mutila ezagutu nuen. Nahiz eta lehen urtean ume txikia bezala hitz egin, estimulo asko zituen eta, ondorioz, gaur egun segurtasun handiz eta hiztegi aberatsarekin mintzatzen da.



Titirijaiko txotxongiloak gurean ere

Titirijai Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiaren harira bi ikuskizun ailegatuko zaizkigu: bihar Britania Handiko String Theatre taldekoek "The red balloon" lana eskainiko dute Coliseoan, 17:00etan (5 euro). Ikuskizunak haur baten eta globo baten arteko laguntasunari buruzko istorioa kontatzen du, horretarako txotxongiloak eta musika erabilia. Eta martitzenean 15:00etatik aurrera Argentinako Manu Mancillak "Cielo abierto" familia osoarentzako txotxongilo ikuskizuna eskainiko du Hezkuntza Esparruan (sarrera doan).

Pintxoak, ogi-dastaketa eta argazki rallya

Arrate Kultur Elkartearen azaroko egitarauari aste honetan egindako XII. Pintxo Lehiaketak ekin dio, baina datozen egunotan egingo diren beste hainbat ekitaldirekin jarraituko du: egunean 19:00etatik aurrera ogiaren inguruko hitzaldi-dastaketa egingo da, dohainik, Juantxo Aranbururen eskutik (izena aurretik emateko 943202299 telefonora bulego ordutegian deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi). Eta San Andres egunerako, berriz, I. Argazki Rallya antolatuko da, 10:00etatik 13:30era. Parte hartzera animatzen direnentzat be-



te beharreko baldintzak eta argazkietarako gaiak Topalekuan banatuko dituzte egunetan bertan, 09:30etik 10:00etara eta izen-ematea ere orduan egingo da. Adinaren arabera hiru maila bereiziko dituzte eta hainbat sari banatuko dira.

Zuzeneko musika tabernarik taberna

Astebururako hainbat kontzertu antolatuko dituzte Beleko, Su Beroa eta Ez Dok tabernetan: gaur 20:30etik aurrera Kokein akustikoan entzuteko aukera izango da Bista Eder kaleko Su Beroa ja-tetxean eta 23:30ean, berriz, Ez Dok tabernak Jon Gurrutxaga&Band taldearen kontzertua hartuko du. Eta Beleko tabernaren bigarren urteurrena ospatzeko bihar 20:30etik aurrera Dee Versions, Oso Basatti eta "Jam Session" saioa hartuko ditu Belekok eta 01:00ean, berriz, Elvis Caino ailegatuko da jaiarekin jarraitu nahi dutenak girotzeko prest.



San Andres jailetako egitaraua aurkeztuta



Martitzenean aurkeztu zuten udaletxean aurtengo San Andres jaien inguruan antolatutako egitaraua Miguel de los Toyos alkateak, Patxi Lejardi Euskara eta Kultura zinegotziak, Jose Luis Gonzalez 'Poxpolo' kultura teknikariak, Josu Mendikute Ustekabe fanfarrereko kideak eta Angel Lopez Eibarko Txirindulari Elkarteko kideak. Prentsaurrekoan azaldu zuten, aurtengo azokak 66 ekoizle bilduko ditu hiru gunetan (Untzagan, Txaltxa Zelaian eta Errebalen) banatuta, 1.500 me-

troko azalera beteko duten karpen azpian. Urterokoari jarraituta, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako produktuen erakusketa, lehiaketa eta salmenta egingo dira hilaren 30ean egingo den azokan. Besteak beste, barazkiak, frutak, ezta, gazta, txakolia, ogia eta lorak erosteko aukera izango da. Aurten Eibarko hiru baserrik hartuko dute parte azokan: Gisasola eta Loixola baserriak barazkiekin eta Sosolak ogiarekin. Horrez gain, Errebalen egingo den abereen erakusketarako animaliak Eibarko baserrietatik eramango dituzte.

Aurkezpenean herriko taldeek egindako beharra azpimarratu zuten, "horrelako egitaraua osatzea euren lanari esker lortzen baita". Dena dela, egitarau osoa eta jaiei inguruan jakin beharreko guztiak datorren astelehen alean, San Andres jaiei eskainitako aldizkarian jasoko ditugu.

Film labur onenak saritu dituzte

Aurreko zapatuan agurtu zuten Asier Errasti film laburren jaialdia 16. edizioa Portalean, irabazleei Javier Agirresaroberi izena zordioten sariak banatzeko ekitaldian: lehiakide gehien batzen duen fikziozko atalean sari nagusia Javi Navarrok jaso zuen, aurretik ere hainbat tokitan saritu duten "Acabo de tener un sueño" izenburuko lanari esker eta bigarren saria, berriz, Luis Aviles Vaqueroentzat izan zen, "Unary" lanarengatik; euskerazko lan onenari saria Ruben Egañak eskuratu zuen, "Igande bateko proposamena" lanarekin; eta animaziozko lan atalean irabazlea Aitor Oñederra

debarra izan zen, "I said I would never talk about politics" izenburuko lanarekin. Plano Corto elkartearen eskutik egindako lehiaketarako 111 film labur jaso dira aurten eta horietako asko aurreko astean Coliseoan eskainitako proiektioetan erakutsi zituzten.



Jaixak Herrixak Herrixandako Sanandresetarako prest

San Andres jaien inguruko egitaraua prestatu du Jaixak Herrixak Herrixandakok. Azaroaren 28an (zapatuan) 19:30etan elektrotzaranga irtengo da Untzagatik eta 23:30ean, berriz, Joxe Replay eta Mugi Panderoa taldeek kontzertua emango dute Untzagako karpan. Eta azaroaren 29an (domekan) eguerditik ekingo diote jaiari: 12:30ean Untzagatik trikipoteoan irtengo dira eta 14:00etan, berriz, Txaltxa Zelaian bazkaria egingo dute (bazkarirako txartelak 9 eurotan ipini dituzte salgai Beleko, Depor eta Buenos Aires tabernetan). Eta bazkalostea girotzeko, 16:00etatik aurrera erromeria eta fandango eta arin-arin "free style" txapelketa antolatu dituzte.



laburrak



EXFIBAR DOMEKAN ZABALIK

Domeka eguerdian inauguratuko dute Exfibar 2015 XLVI. seilu erakusketa Portalean. Hilaren 29ra arte ikusgai egongo den erakusketaren ardatza Eibar Foball Taldearen sorreraren 75. urteurrena izango da eta erakusketaren harira Arrate Filatelikoen Elkartekoek atera ohi duten zigilu-markatzekoa ere horri eskaini diote. Orduetegi berezian zabalduko dute: astelehenetik barixakura (18:00-20:00) eta asteburuan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00).

SAN ANDRES BERTSO JAIALDIA



BERTSO JAIALDIA

Gaur 18:30ean San Andres Bertsolaria Jaialdia hasiko da Portalean, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek hartuko dute parte eta jaialdia hasi aurretik XXI. Bertsolar Paper Lehiaketako irabazleei sariak banatuko zaizkie. Sarrerak 6 euro balio du.

Opariak biltzeko ikastaroa EUSKERAZ PRIMERAN kanpainako dendarientzat

Astelehenean dendariak izan ziren Berbetan programako protagonistak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eurentzat bereziki antolatutako opari-paketeak egiteko ikastaroan. Helburua dendarien arteko harremanak euskeraz izatea da, eta, bide batez, eurendako probetxugarria izan daitekeen formazioa euskeraz eskaintzea. Bertan izandako dendarien arabera, "normalean ez da aukera askorik izaten ikastaroak euskeraz jasotzeko, eta pozgarria iruditu zaigu. Beti dago ikasteko denbora, eta euskeraz bada, askoz hobeto".



"Euskeraz eskatu" tabernetan

Ez dugu ez data zehatzik ezta aitziairik ere behar euskara erabiltzeko, baina sarritan mingain puntara ekartzea ahaztu egiten zaigunez, San Andresak eta Gabonak aprobetxatu nahi ditugu saioi honetan ere euskara erabiltzera animatzeko.



Sanjuanetan lehen saiakera egin bagenuen ere, San Andresetan beste saiakeratxo bat egingo dugu tabernetan euskararen erabilera areagotzeko. Euskeraz Primeran! kanpainarekin bat egin zuten tabernariak "euskeraz eskatu" dioen pin edo txapa eramango dute soinean, eta tabernan ere kartela egongo da euskeraz eskatzera animatzeko. Beraz, badakizue: astindu mingaina!



"Atean ez gelditu, euskeraz aritu!"

Erosten duzuela, erosten duzuela ere, euskara oparitzea baino ederragorik ez dagoela gogorarazi nahi dizuegu, eta hainbat oparitan "atean ez gelditu, euskeraz aritu!" leloa duen pegatina topatuko duzue.

Gogoratuko duzueneguz, uztaileko factoryn-ean erosketetan euskara erabiltzera animatzeko lelo-lehiaketa egin genuen eta lelo irabazlea izango da, hain zuzen ere, pegatinetan ikusiko duzuen.

"Euskeraz primeran!" poltsak

Gabonetako opariak erosten hastekoak bazarete, jakin azaroaren 27an "euskeraz primeran!" poltsak banatuko ditugula herritarren artean.





Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

Gabonetako OTARRA

2.000 €ko balioa duen Otarra

Prezioa: 1€

Zakate 2015eko abuztuaren 15ean ongarri da

Zbk: Euskarria Elkarteak



46"ko TELEBISTA eta gabonetako produktuak dituen otarra

2.000 euroko Gabonetako OTARRA

1€

GAUR (19.00-21.00)
BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTEKO AUKERA

SALMENTA LEKUAK

- Korreos bulegoa	- Otegui harategia
- Isasi okindegia	- Zubi Gain taberna
- Arriaurdi okindegia	- Bolintxo okindegia
- Izadi loradenda	- AEK
- Mugika harategia	- Udal Euskaltegia
- Kultura taberna	- San Andres gazategia
- Etxeto prentsa	- Zabaleta okindegia
- Arriola prentsa	- El Tio Palancas
- Maria Ospital (Calbeton)	

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, MARKEL, domekan lau urte beteko dozuze-lako, txapeldun! Muxu erraldoi bat danon partez!



Zorionak, SARA! Etxeko txikixa haunditzen doa. Muxu asko aitaxo, amatxo eta Goizaneren partez.



Zorionak, BEÑAT, martitzenian zazpi urte egin zenduaz-en-eta. Jarraittu horren alai eta zintzo. Etxekuen partez.



Zorionak, NEREA!, domekan sei urte egingo dozuze-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENEKO, hillaren 25ian zortzi urte beteko dozuze-eta. Famelixaren eta, batez be, Izaroren partez.



Zorionak, INTZA, astelehenian bederzti urte beteko dozuze-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NORA, gaur bost urte betetzen dozuze-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ALEJANDRO, gaur bost urte betetzen dozuze-eta. Zure anaixa Ander eta lehengusu Neilen partez.



Zorionak, JONE, atzo 15 urte egin zenduaz-en-eta. Gurasuen eta Lur-en partez!!!



Zorionak, JOSEAN, gaur zure eguna dalako! Etxekuak eta lagunak ospatzeko desiatzen gagoz.



Zorionak, MARIA ELENA Agote eta JOSE Mª Ortega, gaur urrezko ezteiak egiten dozuze-eta. Ondo pasa domekako ospakizunian!



Zorionak, MIKEL, gaur urtetxua egiten dozuze-eta. Patxo haundi bat UXUE eta famelixaren partez.



Zorionak, LUKA, NOAH eta AMATXO!, azarua zuen hillabetia da-eta. Zoragarri pasatu dogu nahi beste bizkotxo jaten. Muxu haundi bat Peio eta aitaxoren partez.



Zorionak, NEREA... 13 urte daukazu... Muxu potolo bat... Etxekuen partez!!!



Zorionak, amama BENITA, bixar 99 urte beteko dozuze-eta. Famelixa guztiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

20an: 20.30
21ean: 19.45, 22.30
22an: 17.00, 20.00

“Deuda de honor”

Zuzendaria: Tommy Lee Jones



(2 ARETOAN)

20an: 20.30
21ean: 19.45, 22.30
22an: 17.00, 20.00

“Un otoño sin Berlín”

Zuzendaria: Lara Izagirre



(ANTZOKIAN)

20an: 20.30
21ean: 17.00, 19.45, 22.30
22an: 17.00, 20.00
23an: 20.30

“Ocho apellidos catalanes”

Zuzendaria: Emilio M.-Lazaro



hildakoak

- Encarna Santos Carrascal. 88 urte. 2015-XI-12.
- Rufino San Juan San Juan. 93 urte. 2015-XI-12.
- Pili Gonzalez Arrieta. 57 urte. 2015-XI-13.
- Alberto Albistegi Arizmendiarieta. 82 urte. 2015-XI-16.
- Patricio Gonzalez Sanz. 83 urte. 2015-XI-16.
- Jesus Mª Bergara Agirrebeña. 59 urte. 2015-XI-17.
- Basilio Canton Miguelez. 81 urte. 2015-XI-18.
- Rosario Arizmendiarieta Etxaniz. 96 urte. 2015-XI-18.

jaiotakoak

- Alaitz Bergara Mardaras. 2015-XI-3.
- Maddi Mata Rodriguez. 2015-XI-7.
- Leticia Mª Preto Rodrigues. 2015-XI-14.
- Oihan Garcia Vigo. 2015-XI-15.
- Lucia Gutierrez de Lemos. 2015-XI-16.

BARIXAKUA 20

GAZTELEKUA

16.45. Autodefentsa feminista. Indianokuan.

BARIXAKUAN JOLASIAN

17.00. Txokolate-jana, Gurasoak Berbetan-eko kideentzat. ...eta kitto! Elkartean (Urkizu, 11).

HITZALDIA

18.00. "Inmigrazioaren pertzepzioa Euskal Herrian", Xabier Aierdiren eskutik. Portalean.

BERTSO JAIALDIA

18.30. San Andresetakoa, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina eta Beñat Gaztelumendirekin. Hasieran XXI. Bertso Paper Lehiaketako irabazleak sarituko dira. Portalean.

BILERA

19.00. Sanandresak prestatzeko. Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultun.

KONTZERTUA

20.30. Kokein (akustikoan). Su Beroa jatetxean.

KONTZERTUA

22.00. "Nino Bravo gogoan", Serafin Zubiri eta Cielito Musika Bandaren eskutik. Astelena frontoian

KONTZERTUA

23.30. Jon Gurrutxaga &Band. Ez Dok tabernan.

ZAPATUA 21

HITZALDIA

11.30. "Gerra zikiña Euskal Herrian", Eugenio Etxebeste "Antxonon", Jose Domingo Aizpuruaren eta Jon Irazolaren eskutik. Arrate Kultur Elkartean.

EIBAR DEGUSTA

12.00. Ekitaldia. Untzagan.

OMENALDIA

12.30. Meza, Untzaga jubilatutako abesbatzarekin. San Andres elizan.

14.30. Bazkaria, 85 urtetik gorako bazkideei oroigarriak banatzea eta dantzaldia. Kantabria jatetxean.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

TITIRIJAI

17.00. "The red balloon" (String Theatre, Britania Handia) txotxongilo ikuskizuna. 5 euro. Coliseoan.

KIROLA FAMILIAN

17.30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipuru kiroldetxean.

IPUIN KONTALARIA

18.00. "Amonaren sutondoko ipuinak", Behinola-ren eskutik. El Corte Inglesean.

SOSTOA

19.30. Gabon-otarraren zozketa (eguraldi txarrarekin, bertan behera) eta hainbat abestiren interpretazioa. Toribio Etxebarria kalean.

KONTZERTUAK

20.30. Dee Versions, Oso Basatti, Jam Session.

01.00. Elvis Caino. 2. urteurrena ospatzeko. Beleko tabernan.

SANTA ZEZILIA

00.30. Cielito Musika Bandaren serenata.

DOMEKA 22

BAKAILAO TXAPELKETA

11.00. XII. Eskolartekoa. Untzagan.

SANTA ZEZILIA

11.00. Usartza Txistulari Taldearen kalejira.
12.30. Ganbera kontzertua, Harituz hari-laukoteak eta Molto Vivace metal boskoteak lagunduta. Coliseoan.

SANTA ZEZILIA

12.00. San Andres elizako abesbatzaren emanaldia, mezan. San Andres elizan.

EIBAR DEGUSTA

12.00. Ekitaldia. Untzagan.

EXFIBAR

12.00. XLVI. Seilu erakusketa inaugurazioa. Eibar Kirol Elkartean 75. urteurrenari eskainitako zigilua ipintzea (11:00etatik 14:00etara). Portalean.

GAZTELEKUA

17.00. Play/Wii. Indianokuan.

KIROLA FAMILIAN

17.30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipuru kiroldetxean.

SOS SAHARA

17.30. Iker Lauroba eta Itsasargiak, Beñat Igarabide, Sahara Libre (saharar musikariak), Folkiak eta Emon taldeen kontzertu akustikoak. 5 euro (dirua kaltetuei laguntzeko izango da). Bergarako gaztetxean.

ASTELEHENA 23

IKASTEN

10.00. Teknoforum. Untzagan jubilatutako etxean.

MARTITZENA 24

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Julian Gayarreren bizitza", Jose Fran Gutierrezen eskutik. Armeria Eskolan.

TITIRIJAI

15.00. "Cielo abierto" (Manu Mancilla, Argentina) txotxongilo ikuskizuna. Doan. Hezkuntza Esparruan.

IKASTEN

16.00. Punto tailerra.
17.00. Joskintza tailerraren lehen txanda (2. txanda 18:30etik aurrera). Portalean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Teknologia berriak" hitzaldia. Portalean.

HITZALDIA

19.00. "Violencia de género en los procesos migratorios", Leire Lasaren (CEAR) eskutik. Portalean.

BILERA

19.00. Udalaren auzorik auzoko bilera, Jardinetan, Estaziño eta Matsariakoekin. Coliseoan.

EGUAZTENA 25

1945-EAN JAIOAKOAK

09.30. Errioxara joateko autobusaren irteera ordua, Ego Gaineko geltokian.

IKASTEN

11.00. "Zer egiten dugu gure ohiturei eusteko?". Untzagan gizarte zentruan.

HITZALDIA

15.00. Produktu fitosanitarioen inguruko, aplikatzaile txartelaren inguruko zalantzak argitzeko. Galdonako tabernan.

ELKARRETARATZEA

18.45. Ibilaldia, anbulategi pareko parketik abiatuta, Untzaga plazaraino.

19.00. Elkarretaratzea, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. Untzagan.

HITZALDIA

19.00. "Nola galdu lotsa euskeraz hitz egiterakoan eta hitz egitearen arazoak", Jürgen Wolfen eskutik. ...eta kitto! Elkartean (Urkizu, 11).

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

HITZALDIA

19.30. "Tratamientos para las patologías digestivas más frecuentes con cirugía mínimamente invasiva", Jose Luis Elozegi eta Javier Murgoitio sendagileen eskutik. Portalean.

EGUENA 26

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Udalari buruzko informazioa", De los Toyos alkatearen eskutik. Armeria Eskolan.

HITZALDI-DASTAKETA

19.00. Ogiaren inguruko hitzaldi-dastaketa. Arrate Kultur Elkartean.

BILERA

19.00. Udalaren auzorik auzoko bilera, herriaren erdialdean bizi direnekin. Untzagan jubilatutako etxean.

KALETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean

erakusketak

✓ Azaroaren 29ra arte

“1905 BOJ 2015” erakusketa. Armagintzaren Museoa.

✓ Azaroaren 22tik 29ra arte

EXFIBAR 2015 XLVI. SEILU erakusketa. Portalean.

Ordutegi Berezia: lanegunak (18:00-20:00), asteburuan (12:00-14:00 eta 18:00-20:00).

✓ Azaroaren 30era arte

“CLUB FOTOGRAFICO 76” argazki erakusketa. Deportiboan.

OSKAR BAGLIETTOREN “Instantes en la montaña” argazkiak. El Ambigu tabernan.

IÑAKI CAMPOSEN “Metronomos” argazki erakusketa. Portalea tabernan.

IÑAKI CAMPOSEN rock taldeen argazki erakusketa. Ez Dok tabernan.

MUNDUKO PAISIAIK - LIBURUTEGIAK TOPALEKU “Kulturaniztasuna”. Liburutegian.

ikastaroak

✓ Zumba ikastaroa

Noiz eta non: Astelehen eta eguenetan (18.00-19.00), Oihane Sarasketaren eskutik. Arrate Kultur Elkartean. **Izen-ematea:** arratekultu@gmail.com / 943202299 / bulego orduetan (30 euro bazkideek, 35 euro bazkide ez direnek).


✓ Zeinu hizkuntza ikasten hasteko ikastaroa

Noiz eta non: Urtarriletik aurrera, eguaztenetan (19.00-21.00). 30 ordu. ARANSAGI Gorren Zerbitzuaren egoitzan. **Izen-ematea:** 943762703 (87 euro).

lehiaketak

✓ San Andres I. Argazki Rallya

Noiz eta non: Azaroak 30, 10:00etatik 13:30era. **Izen-ematea:** Bete beharreko baldintzak eta gaiak Topalekuan banatuko dituzte egunean bertan, 09:30etik 10:00etara (0-12 urtera arte doan; 12-18 urtera arte 3 euro; 18 urtetik gora 6 euro bazkideek, 8 euro bestee).



S U D O K U A

4	5		9				8	
				2				
				1	6	2		
	8		2			1		9
3			6	7				8
7		9		8			6	
	9	8	1					
			8					
	3			4			9	2

9	7	6	4	3	2	5	8	1
1	5	4	9	7	8	6	3	2
2	8	3	6	1	5	9	7	4
7	9	5	8	4	6	2	1	3
3	6	2	1	9	7	8	4	5
8	4	1	5	2	3	7	6	9
4	2	7	3	8	9	1	5	6
6	1	8	2	5	4	3	9	7
5	3	9	7	6	1	4	2	8

AURREKOEN EMATZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulatorioa.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	943 00 01 17
Pesa.....	900 10 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

farmaziak

- ✓ **barixakua 20**
EGUNEZ Larramendi (Calbeton, 19)
- ✓ **zapatea 21**
EGUNEZ Mendiñueta (Urkizu, 6)7)
- ✓ **domeka 22**
EGUNEZ Goikoetxea (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **astelehena 23**
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- ✓ **martitzena 24**
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguztena 25**
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **eguztena 26**
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **barixakua 27**
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI

Elorza (J. Gisasola, 18)

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukalde, bi koma eta ganbara. Tel. 615-759399.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Txonta kalean. 2 logela, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 609-175333.
– Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 632-192408.
– Familia batek pisua hartuko luke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 642-349114.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 697-754174.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Martxan dagoen taberna traspasatzen da Isasi kalean. Bezero finkoekin. Prezio interesgarria. Tel. 695-711730.

3.2. Errentan

– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.
– Garajea alokagai Matsaria inguruan (Azpiri eraikinean). Tel. 696-626593.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita gaez ere. Tel. 662-012834.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 639-988593.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-988593.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 622-225561.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 646-778839.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-768026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 658-458271.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaindu, baserriaz arduratu, sukaldean lagundu eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-074529.
– Gizonezkoa eskaintzen da banaketak, zalmalana edo garbiketarako egiteko eta urdu-gaztelera-urdu interprete lanak egiteko. Tel. 666-107260.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan jarduteko. Tel. 674-377765.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-354043.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak, etxeak edo pegorak garbitzeko. Tel. 943-901752.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 637-074529.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-426847.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordutegik zabala. Esperientziarekin. Tel. 672-442318.
– Neska eskaintzen da soziedadeak, pegorak edo bulegoak garbitzeko. Tel. 943-700229 eta 638-421827.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197217.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko, banatzaile jarduteko, etb. Tel. 632-855281.
– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 09.30etik aurrera. Tel. 646-892162.
– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-743240.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-389174.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-827889.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-748977.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-454417.
– Emakume euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 637-102725 eta 943-744033.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-384325.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketara lanak egiteko eta ostalaritzan edo tailerlean jarduteko. Tel. 602-815492.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 602-051309.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 677-736060.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari jarduteko, nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-682398.
– Pedagogoa eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiten laguntzeko. Tel. 677-591982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko... Tel. 688-820508.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia handia eta erreferentziak. Tel. 631-409528.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Edozein orduategitan. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanak eta garbiketarako egiteko. Baita pegorak garbitzeko ere. Tel. 653-010861.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Gizonezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-882838.
– Emakumea eskaintzen da goizez etxeko lanak egiteko. Tel. 653-735843.
– Neska arduratsua eskaintzen da goizez nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 639-611454.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Edozein orduategitan. Tel. 633-808931.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 675-243999.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 645-248040.

4.2. Langile bila

– Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 699-912181.
– Neska euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 646-616608.
– Emakume euskalduna behar da arratsaldez umeak zaindu eta etxeko lanetan laguntzeko. Tel. 626-333620.
– Emakume euskalduna behar da bikote nagusia zaintzeko asteburuetan. Interna. Tel. 600-711094.
– Emakume euskalduna behar da bikote nagusia zaintzeko asteburuaren 9tik 24ra arte. Interna. Tel. 625-700365.
– Sukaldari-laguntzaile behar da jatetxe baterako. Tel. 620-810120.
– Kamarera/o behar da asteburuetan lan egiteko. Tel. 620-810120.
– Ilepaintzaile behar da barixua eta zapa-tuetarako. Tel. 943-201853.– Emakume euskalduna behar da nagusiak zaintzeko (janaria eta etxeko lanak egiteko). Deitu 16.00etatik aurrera. Tel. 629-460153.
– Sukaldaria behar da pintxoak eta kazuelak prestatzeko. Barran esperientzia izateko baloratuko da. extraiebar2015@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarretako klaseak ematen dira. 1 eta 3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Al-berto.
– Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoaia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Sarrerako altzari klasikoak, butakoiarekin. Kalidade onekoa, egoera oso onean. Tel. 656-733572.
– PSP fundarekin eta Play Station 2 (Slim) salgai. Ia erabili gabe. Jolasak opari. Tel. 671-846270.
– Binilozko diskoak, LP-ak eta singleak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Trio Jane Carrera Aniversario, urdin ilun kolorekoak salgai. Oso egoera onean. 0 taldea, kapazoa eta aukia. Zaku eta plastikokoak barne. 250 euro. Tel. 686-474208.
– 1'50 metroko ohea salgai. Gereziendo-zurez egindakoa eta diseinuzkoa. Ia berria. 500 euro, negoziagarriak. Tel. 635-009554.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Urrezko pultsera galdutako guren aurreko asteburuaren. Iraia jartzen du bertan. Tel. 646-280237.
– Orain dela 15 egun umearen motorra ahaztu nuen T. Etxebarrian. Urdin eta hori kolorekoa, Hugo jartzen du. Tel. 677-309013.

6.4. Bestelakoak

– Elkarte gastronomiko baten kidea izatea nahiko nuke eta aukera desberdinak ikusteak. Tel. 667-516350.

Hyundai Tucson Berria

Aldatzea jarrera bat da.



#changeisgood

Aldaketa gure bizitzan zatia da. Sentsazio berriak aurkitzea eta une hunkigarriak bizitzea ahalbidetzen digu. Irudimenaren motorra da. Hyundai Tucson berria jarrera horretatik jaio da. Bere diseinu eta berrikuntza teknologikoek gidaritzaz gozatzeko zure era guztiz aldatzea ekarriko dute.

Esperimentatu aldatetaren indarra
www.hyundai.es helbidean

Tucson Berria **18.900€** tik aurrera



OARSO CAR

HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPLUZKOARAKO


ELGOIBAR

Olaso Polig., 17 **943 74 14 80**



Hyundai Tucson Gama
 CO₂ Emisioak (gr/km): 119-175
 Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,6-7,5

Tucson 1.6 GDI (131CV) 4x2 BD ESSENCE-rako gomendatutako prezioa, Penintsulan eta Balearretan (18.900€). BEZ, garrailoa, matrikulazio-zerge, promozio-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantenimendu-eskaintza, Hyundai Solución Plana eta Gobernuaren PIVE Plana barne (Gobernuaren PIVE Planaren baldintzak betetzeaz iruten). Eskaintza aplikagarria gutxienez 60 hilabetetan eta 13.000€ko gutxienezko zenbatekoan Santander Consumer EFC S.A.-ren bidez finantzatuko duten bezero partikularrentzat. Finantza-entitatearen azterketa eta onarpenari lotutako finantziarioa. 2015/11/30era arte balioa du eskaintza honek. Erakutsitako modeloa: Tucson Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziarioa iruten. Begiratu eskaintza eta mantenimenduaren baldintza guztiak Hyundai kontzesionarioetako sare ofizialean edo hyundai.es helbidean.



Pirritx, Porrotx eta MariMotots

EIBARREN berriro ere, orain

"Amalur"

LAN BERRIAREKIN

Irailaren 30erako kuota eguneratuta duten

BAZKIDEENTZAKO AURRE-SALMENTA

azaroaren **27** ra arte (750 euro)

...eta kitto!-n salgai:

bazkide bakoitzak 3 sarrera gehienez

ORDUTEGIA: 10.00-14.00 eta 16.00-19.30

abenduak 12

ZAPATUA

16.30 eta 19.00

abenduak 13

DOMEKA

16.00 eta 18.30

GAINONTZEKOAK

azaroaren **28**tik aurrera (8'00 euro)

El Tío Palancas (Juan Gisasola), Eneritz argazkidenda (Urkizu) eta Gozoki (Bidebarrieta eta Sostotarren)



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**